

EIBARKO UDALEKO INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA



1. ONARTZEA ETA INDARREAN SARTZEA

Testu hau Alkatetzaren 2019ko otsailaren 15eko ebazpenez onartu zen. Informazioaren Segurtasun Politika hau data horretatik aurrera da eraginkorra eta beste berri batez ordeztu den arte egongo da indarrean.

Eibarko Udaleko Informazio Segurtasun Politika hau indarrean sartzeak berekin dakar beste arlo, unitate eta udal zerbitzuetan egon litekeen beste edozein politika baztertua.

2. SARRERA

Administrazio Elektronikoa garatzearen ondorioz, informazioaren eta komunikazioen teknologia-sistemek informazio-kopuru handiak tratatu behar dituzte. Informazioa mehatxu eta zaurgarritasun anitzen eraginpean dago, eta mehatxu horiek eragin kaltegarria izan dezakete sistemetan. Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala (aurrerantzean SEN) arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuak konfiantza funtsatu nahi du: informazio-sistemek beren espezifikotasun funtzionalen arabera emango dituztela zerbitzuak eta informazioa zainduko dutela, kontrol gabeko etenik edo aldaketarik gabe, eta informazioa baimendu gabeko pertsonen ezagutzara iritsi gabe.

SEN betetzeko helburuz, Eibarko Udala, informazio-sistemei eragin diezaieketen arriskuen jakitun, zeinak herritarren esku jarritako izapide elektronikoetan gerta daitezkeen, eta kontuan izanik herritarrek Udalaren esku jartzen dutela beren aktiborik baliotsuena, alegia, "beren informazio propioa", kontziente da sistema horiek arreta handiz administratu behar direla, eta aztertutako informazioaren edo emandako zerbitzuen eskuragarritasunari, osotasunari edo konfidentziasunari nahita edo nahi barik eragin diezaieketen kalteen aurrean babesteko neurri egokiak hartu behar direla.

Era horretan, SEN esparruaren barruan dauden Eibarko Udaleko arlo, unitate eta zerbitzu guztiek argi dute IKT segurtasuna sistemaren bizi-zikloaren etapa bakoitzaren parte integral bat dela, haren sorreratik hasi eta zerbitzua erretiratzen den arte, garapen- edo eskurapen-erabakietatik eta ustiapen-jardueretatik pasatuz. Segurtasun-baldintzak eta finantzazio-premiak planifikazioan identifikatu eta jaso behar dira, eskaintzen eskaeran, eta IKT proiektuetarako lizitazio-pleguetan.

Beraz, Eibarko Udalarentzat, Informazioaren Segurtasunaren helburua zera da: informazioaren kalitatea eta zerbitzuak etenik gabe emango direla bermatzea, aldeztetik esku hartuz, edozein gorabehera detektatzeko eguneroko jarduera gainbegiratzuz, eta gorabeheren aurrean lehenbailehen erreakzionatuz, ahalik eta azkarren erreperatzeko, SENaren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

3. HELBURUA

Eibarko Udalaren Informazioaren Segurtasun Politikak —aurrerantzean Informazioaren Segurtasun Politika—, erantzukizunak identifikatu, eta printzipioak eta gidalerroak ezartzen ditu, Informazio eta Komunikazioen Teknologiek (IKT) kudeatutako zerbitzuak eta informazio-aktiboak egoki eta sendo babesteko.

Informazioaren Segurtasun Politika da Eibarko Udalak duen tresna bere helburuak lortzeko, informazio- eta komunikazio-sistemak modu seguruan erabiliz. Segurtasunak, prozesu integraltzat hartuta, informazio- eta komunikazio-sistemekin lotutako elementu teknikoei, humanoiei, materialei eta antolakuntzakoiei dagokien guztia biltzen du bere baitan; eta ez da produktu gisa hartu behar, egokitze- eta hobetze-prozesu etengabetzat baizik, kontrolatu, gestionatu eta monitorizatu behar dena, Eibarko Udalean segurtasunaren kultura ezarriz.

4. IRISMENA.

Politika hau derrigorrez bete eta aplikatuko dute Eibarko Udaleko arlo, zerbitzu eta unitateek eta beren bitartekoek eta SENak ukitutako prozesuek, izan barrukoak izan kanpokoak, entitatearekin kontratuen bidez edo hirugarrenekiko akordioen bidez lotuak.

Eibarko Udaleko kide guztiek, SENak eragindakoek, “Informazioaren Segurtasun Politika” hau eta segurtasun-araudia ezagutu eta bete behar dute, Informazio Segurtasun Batzordearen ardura izanik behar diren bitartekoak jartzea informazioa eragindako langileengana helarazteko.

5. EIBARKO UDALAREN MISIOA

Eibarko Udalak, bere interesak eta agindu zaizkion funtzio eta eskumenak kudeatzeko, jarduera eta zerbitzu publikoak sustatzen ditu, herritarren premiak eta nahiak asetzen laguntzen dutenak. Horretarako, eta herritarrek auzi publikoetan parte hartzeko xedez online izapideak egiteko aukera ematen du, hala partaidetza bide berriak ezarriz demokrazia parte-hartzailearen eta ekintza publikoaren eraginkortasunaren garapena bermatzeko.

Bestalde, teknologia berrien erabilera sustatu nahi da bai Udalean bai herritarren artean. Lortu nahi diren helburu nagusiak hauexek dira: herritarren eta Udalaren arteko erlazio elektronikoa bultzatzea, eta erlazio horretan beharrezkoa den konfiantza sortzea Udalaren eta herritarren artean.

6. PRINTZIPIOAK ETA GIDALERROAK.

Informazioaren segurtasuna bermatzeko orduan aurreikusi behar diren printzipioak eta gidalerroak hauexek dira: prebentzioa, detekzioa, erantzuna eta berreskurapena, halako moduz non dauden mehatxuak ez daitezen gauzatu edo, gauzatuz gero, informazioari edota ematen dituzten zerbitzuei modu larrian eragin ez diezaieten.

Prebenitzea.

Eibarko Udalak, ahal den neurrian, prebenitu eta saihestu egin behar du informazioa edo zerbitzuak segurtasun-gorabeherek kalte ditzaten. Horretarako, bere zuzendaritza-organoez SENek (urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretu bidez arautua) zehaztutako segurtasun-neurri gutxienezkoak inplementatu behar dituzte, bai eta edozein kontrol gehigarri ere, mehatxu eta arriskuen ebaluazio bidez identifikatua. Kontrol horiek, eta langile guztien rol eta segurtasun-erantzukizunak ere, oso argi definituta eta dokumentatuta egongo dira.

Politika hori betetzen dela bermatzeko, Eibarko Udalak:

- Baimendu egiten ditu sistemak, operatzen hasi aurretik.
- Ebaluatu egiten du aldizka segurtasuna, baita ohi legez egiten diren konfigurazio-aldaketak ere.
- Eskatzen du hirugarrenez aldizkako berrikusketa egitea, ebaluazio independente bat lortzeko.

Detekzioa.

Eibarko Udalak bere informazio-sistemen eragiketa-kontrolak ezartzen ditu zerbitzuetan arazoak detektatzeko eta horren arabera jokatzeko, SENaren 9. artikuluan (aldizkako berrikusketa) ezarritakoari jarraituz. Desbideraketa esanguratsu bat dagoenean ohikotzat jo diren parametroetatik (SENaren 'Defentsa-lerroak' 8. artikuluan adierazitakoaren arabera), beharrezkoak diren detekzio-, analisi-, eta jakinarazpen-mekanismoak ezarriko dira arduradunengana erregularitasunez iristeko.

Erantzutea.

Ardura duten zuzendaritza-organoez mekanismoak ezarri behar dituzte segurtasun-gorabeherei modu eraginkorrean erantzuteko.

Berreskuratzea.

Zerbitzuen disponibilitatea bermatzeko, Eibarko Udalak beharrezkoak diren bitartekoak eta teknikak ditu eskura, zerbitzu kritikoenak berreskuratzea bermatzea ahalbidetzen dutenak. Eibarko Udaleko Segurtasun Dokumentuan jasotako prozedurak eta arauak dira.

7. ESPARRU ARAUTZAILEA.

Eibarko Udalaren jarduerak garatzen dituen esparru arautzailea, eta, zehazki, herritarrei zerbitzu elektronikoak ematea honako arau hauek osatzen dute:

- a) 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren eremuan Segurtasun Eskema Nazionala (SEN) arautzen duena.
- b) 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, indarrean sartzen denean.
- c) 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- d) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak babesteari buruzkoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.
- e) 1720/2007 Errege-Dekretua, abenduaren 21ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Arautegia onesten duena.
- f) 1671/2009 Errege Dekretua, azaroaren 6koa, zeinak partzialki garatzen duen 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, herritarren zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoari buruzkoa.
- g) Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatu zuena.
- h) 57/2003 Legea, abenduaren 16koa, toki-gobernua modernizatzeko neurriei buruzkoa.
- i) 1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 12koa, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- j) 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duena.
- k) 59/2003 Legea, abenduaren 19koa, sinadura elektronikoari buruzkoa.
- l) 1553/2005 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, nortasun agiri nazionala eta agiri horri lotutako sinadura elektronikoko ziurtagiriak nola eman arautzen duena.
- m) Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, Gardentasunari, Informazio Publikoa eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoa.

Halaber, esparru arautzailearen parte dira Eibarko Udaleko Administrazio Elektronikoari aplikatu dakizkiokeen gainerako arauak.

8. SEGURTASUNAREN ANTOLAKETA

Segurtasunaren antolaketa ezarrita geratzen da sistemen segurtasun-gestioaren alorreko jarduerak eta erantzukizunak identifikatuta eta definituta, eta haien egitura ezarrita.

Oro har, Eibarko Udaleko informazio-sistemen erabiltzaile guzti-guztiak dira informazio-aktiboaren segurtasunaren arduradunak; horretarako zuzen erabiliko dituzte aktibo horiek, betiere dagozkien eginkizun profesionalekin eta akademikoekin bat etorritz.

Segurtasun-gorabeherei hobeto erantzuteko, Eibarko Udalak lankidetzaz-erlazioak izango ditu segurtasun arloko agintari eskudunekin, informatika- edo komunikazio-zerbitzuen hornitzaileekin, bai eta informazio-sistemen segurtasuna sustatzera dedikatzen diren erakunde publikoekin edo pribatuekin ere.

Zehazki, informazioaren segurtasunaren gestioa funtzio zehatz, definitu eta dokumentatuak dituzten pertsonen eta batzordeen erantzukizun espezifikoak da.

8.1. Batzordeak: Eginkizunak eta erantzukizunak

Segurtasun Batzordea honako kargu eta pertsona hauek osatuko dute:

- Batzordeburua: Gobernu Irekiaren Ordezkaritzako zinegotzi ordezkaria.
- Idazkaria: Antolaketako teknikaria.
- SENaren Segurtasun Arduraduna: Eibarko Udalaren idazkari nagusia.
- SENaren Sistemen arduraduna: Informatika Saileko arduraduna.
- Zerbitzuaren arduraduna: Antolaketa eta Langileria zuzendaria.
- Informazioaren arduraduna: Antolaketako teknikaria.

Informazioaren Segurtasun Batzordeak udal arlo bakoitzaren SENaren Segurtasunaren arduraduneri dei egin ahalko die, premien arabera.

Informazioaren Segurtasun Batzordeko ohiko bilerak urtero egingo dira.

Bilera ez-ohikoak deitu ahalko dira, premiek edo gorabeherek hala eskatzen dutenean.

Segurtasun Batzordeak honako eginkizunak izango ditu:

- Informazioaren Segurtasun arloan, Udalaren eta bere arloen, unitateen eta zerbitzuen kezkei erantzutea, Alkatetzari Segurtasunaren egoeraren berri erregulartasunez emanez.
- Aholkularitza ematea Informazioaren Segurtasunaren alorrean, betiere hala eskatzen zaionean.
- Ebaztea arduradunen artean edota Udaleko arlo/unitate/zerbitzuen artean ager daitezkeen erantzukizun-gatazkak, erabakitzeko nahiko autoritaterik ez duen kasuak dagozkion organoari helaraziz.
- SEN Informazioaren eta Zerbitzuen eginkizunak eta obligazioak jasotzea, eskatzen den edota beharrezkotzat jotzen diren zeharkako ekintzetan.
- Informazioaren Segurtasunaren gestio-sistemaren hobekuntza jarraitua sustatzea. Horretarako:
 - **Koordinatuko ditu** Informazioaren Segurtasunaren eremuko arlo/unitate/zerbitzuen esfortzuak, ziurtatzeko ahalegin horiek irmoak direla, arloan erabakitako estrategiarekin bat datozeela, eta bikoiztasunak saihesten dituztela.
 - **Proposatuko ditu** Udaleko Informazioaren Segurtasunaren **hobekuntza-planak**, dagokion aurrekontu-partidarekin, segurtasun arloko jardueretan lehentasunak jarriz baliabideak mugatuak direnean.
 - Bermatuko du Informazioaren Segurtasuna proiektu guztietan kontuan har dadin, hasierako zehaztapenetik hasita eta martxan jarri arte (**Privacy by Design**). Zehazki, bermatu beharko du zerbitzu horizontalak sortu eta erabiliko direla bikoiztasunak murriztu eta IKT sistemen funtzionamendu homogeneo bat babestuko dutenak.
 - **Jarraipen bat egingo die** Udalak bere gain hartutako arrisku nagusiei eta haien inguruko jarduera posibleak gomendatuko ditu.
 - **Jarraipen bat egingo dio segurtasun-gorabeheren gestioari** eta gorabeheron inguruan egin daitezkeen jarduerak gomendatuko ditu.
- Informazioaren Segurtasun Politika lantzea (eta aldizka berrikustea) Udaleko organo gorenak onar dezan.
- Informazioaren Segurtasunaren araudia lantzea, Eibarko Udalarekin lankidetzan onar dadin.
- Egiaztatzea informazioaren segurtasun-prozeduren egokitasuna eta gainerako dokumentazioa.
- Formazio-programak egitea langileei Informazioaren Segurtasunaren arloan eta zehazki izaera pertsonaleko datuen babesaren arloan trebakuntza eta sentsibilizazioa ematera bideratuak.
- Lantzea eta onartzea administratzaile, operadore eta erabiltzaileen formazio eta sailkapen-baldintzak, Informazioaren Segurtasunaren ikuspegitik.
- Sustatzea SEN auditoretzak aldizka egitea, Udalak segurtasunaren arloan bere obligazioak betetzen dituela egiaztatzeko.

8.2. Rolak: eginkizunak eta erantzukizunak

Informazioaren Segurtasunari buruzko funtsezko rolak hauexek dira:

- Zerbitzuaren arduraduna, Antolaketa eta Langileriako zuzendariak beteko duena.
- SENaren segurtasun-arduraduna, Eibarko Udaleko idazkari nagusiak beteko duena.
- Informazioaren arduraduna, Antolaketako teknikariak beteko duena.
- SENaren Sistemen arduraduna: Informatika Saileko arduraduna.

Jarraian zehazten eta ezartzen dira zein diren figura bakoitzaren eginkizunak eta erantzukizunak:

- Zerbitzuaren arduradunak zehazten du zein diren emandako zerbitzuen segurtasun-baldintzak urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren I. Eranskinean ezarritako esparruaren barruan, SENeko segurtasun-arduradunak proposatu ondoren.
- Informazioaren arduradunak zehazten du zein diren informazioaren segurtasun-baldintzak urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren I. Eranskinean ezarritako esparruaren barruan, SENeko segurtasun-arduradunak proposatu ondoren.
- SENeko segurtasun-arduradunaren eginkizuna da segurtasunaren alorrean egin behar dena planifikatzea, bai eta egin dena gainbegiratzea ere.
- Sistemaren arduraduna sistemaren eragiketen arduraduna da.

Datuak babesteko politikak eta segurtasun-rolak Segurtasun batzordeari dagozkio.

8.3. Izendatze-prozedurak

Eibarko Udalak batzordea eratu eta erantzukizunak banatuko ditu. Izendapen guztiak 4 urtetik behin berrikusiko dira, baita postuak hutsik geratzen direnean ere.

9. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK

Eibarko Udalak izaera pertsonaleko datuak bakarrik jasoko ditu baldin eta egokiak badira, bidezkoak eta ez larregizkoak, eta datu horiek bakarrik erabiltzen badira lortu diren esparru eta eginkizunetarako. Halaber, beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolamenduzkoak hartuko ditu Datuak Babesteko araudia betetzeko. Neurri horiek jasota daude Eibarko Udalak onartutako Segurtasun Dokumentuan.

10. LANGILEEN BETEBEHARRAK

Informazio-sistematarako sarbidea duen langile orok obligazioa du informazioaren segurtasun-politika eta ezartzen den segurtasun-araudia ezagutu eta betetzeko. Horretarako, Administrazio Elektrikoaren esparruan dauden informazio-sistemen erabiltzaile guztiei dagokionean eta modu irisgarri eta ulergarrian, jakinaraziko zaie informazioaren segurtasun-politika. Ez bada betetzen, zigortu egin ahalko da dagokion diziiplina-araudiari jarraituz.

Halaber, azpikontratatu kanpoko enpresetako langileek, baldin eta Eibarko Udaleko zerbitzuetako bati lotutako dokumentazio edo informaziorako sarbiderik badute, obligazioa dute informazioaren segurtasun-politika hori ezagutu eta betetzeko.

Informazio eta komunikazioen teknologia-sistemak erabiltzen dituen langile orok jasoko du trebakuntza sistema horiek modu ziurrean erabiltzeko. Politika hori eraginkortasunez bermatzen duten kontrol-prozedurak ezarriko dira, zeinak udal sail, unitate eta zerbitzuek eta entitate autonomoek egingo dituzten.

11. ARRISKUEN KUDEAKETA

Arriskuen kudeaketa segurtasun-prozesuaren funtsezko parte bat da eta modu jarraituan egin behar da informazio-sistemen inguruan, inguruak kontrolatuta mantentzeko eta arriskuak maila onargarrietaraino minimizatzeko.

Informazioaren eta Zerbitzuen arduradunek erantzun egingo dute informazioaren eta zerbitzuen arriskuez, hurrenez hurren, eta haien jarraipen eta kontrola ziurtatuko dute, alde batera utzi gabe eginkizun horiek beste batzuen esku lagatzeko aukera. Horretarako, prozesuan Segurtasunaren eta Sistemen arduradunen parte-hartzea eta aholkularitza eduki ahal izango dute.

Arriskuen azterketa egiteko, kontuan hartuko dira Administrazio Publikoaren esparrurako argitaratutako aholkuak eta, bereziki, Zentro Kriptologiko Nazionalak landutako gidak. Arriskuen ebaluazio hori erregulariki errepikatuko da informazio-sistematarako, kontuan izanik aipatutako Zentroak formulatu dituen aholkuak.

Bada konpromiso bat Udalaren aldetik, eta obligazio bat Informazioaren arduradunen aldetik, arriskuen azterketak egiteko eta haien ondorioei kasu egiteko. Politika honen mende dauden sistema guztiek egin beharko dute arriskuen azterketa bat, ebaluatuko dituen zer mehatxu eta arrisku dituzten aktiboek.

Azterketa hori errepikatu egingo da:

- Erregulariki, gutxienez bi urtetik behin.
- Nabarmen aldatzen denean erabilitako informazioa edo emandako zerbitzuak.
- Segurtasun-gorabehera larri bat gertatzen denean edo ahulezia larriak antzeman eta jakinarazten direnean.

12. HIRUGARRENAK

Eibarko Udalak beste erakunde batzuei ematen dienean zerbitzua edo beste entitate batzuen informazioa erabiltzen duenean, Informazioaren Segurtasun Politika honen berri emango zaie. Bideak ezarriko dira Informazio Segurtasun batzordeei informazioa helarazteko eta koordinatzeko, eta jarduera-prozedurak ezarriko dira segurtasun-gorabeherari aurre egiteko.

Eibarko Udalak hirugarrenen zerbitzuak erabiltzen dituen edo informazioa hirugarrenei lagatzen dienean, jakinarazi egingo zaie zein den Segurtasun Politika eta zerbitzu edo informazio horiei eragiten dien Segurtasun Araudia. Hirugarren hori aipatutako araudian ezarritako obligazioen mende geratuko da, eta bere prozedura operatibo propioak garatu ahalko ditu segurtasuna betetzeko. Prozedura espezifikoa ezarriko dira gorabeherak jakinarazi eta ebazteko. Bermatu egingo da hirugarrenen langileak behar bezala kontzientziatuta egon daitezen segurtasun-alorrean, gutxienez, Segurtasun Politika honetan ezarritako maila berean.

Baldin eta Segurtasun Politikaren alderdiren bat ezin badu hirugarren batek bete aurreko paragrafoetan eskatzen den bezala, SEN Segurtasun arduradunaren txosten bat egiteko eskatuko da, dauden arriskuak eta haiei aurre egiteko modua zehaztuko dituen. Txosten hori informazioaren eta eragindako zerbitzuen arduradunek onartuko dute, aurrera jarraitu baino lehen.

13. INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKAREN GARAPENA

Informazioaren Segurtasun Politika hau osatu egingo da beste araudi eta segurtasun-aholku batzuekin (politikak, protokoloak, prozedurak, jarraibide teknikoak, Jardunbide Egokien Dekalogoak, eta abar).

Era berean, Informazioaren Segurtasun Politika honek osatu egiten ditu Eibarko Udalak izaera pertsonaleko datuak babesteko segurtasun-politikak.

Segurtasun Araudia ezagutu nahi duten Erakundeko kide guztien esku egongo da, bereziki, informazioaren eta komunikazioen sistemak erabiltzen, operatzen edo administratzen dituztenen esku. Kontsultagai egongo da hemen: www.eibar.eus/segurtasundokumentua.